# NAhitA

Septiembre 2016ko Iraila
Nº 29. zbk

Ermuko Udalaren Berdintasunerako Sailaren argitalpen
Publicación del Departamento de Igualdad del Ayuntamiento de Ermua




%100 paper birziklatua. Kloro eta zuritzaile optikorik gabea.
Papel 100% reciclado. Sin cloro ni blanqueantes ópticos.

ERREPORTAIA **ETXEAK, BERTSOAK... ETA SAREAK** - EMAKUMEEN ETXEAK

**CASAS, VERSOS... Y REDES** - LAS CASAS DE LAS MUJERES REPORTAJE

# PROGRAMA «ESCUELA DE EMPODERAMIENTO»
# «JABEKUNTZA ESKOLA»ren EGITARAUA

## ZIKLOAN BUELTAKA TAILERRA (12 ORDU)
## TALLER A VUELTAS EN EL CICLO (12 HORAS)

24 de septiembre, 8 y 22 de octubre 12 noviembre, SÁBADOS de 10:30 a 13:30h
Irakaslea: Ainhoa Aldazabal (Skolastika) · **Matrikula: 5 Euro**

Hilekoa, gizaldi eta gizaldietan estigmatizatua, zigortua eta kontrolatua izan den konstrukto sozial bat da. Oso garrantzitsua da emakumeontzat gure gorputzarekin adiskidetzea, guk geuk geuretzat egindako proposamenen bitartez. Garrantzitsua da, halaber, gure izaera ziklikoa berreskuratzea, zeren odoletan gaudenean bakarrik ohartzen baikara gure hilekoaz, baina kontua da hilekoa izan aurretik eta gero ere hainbat eta hainbat egoera eta fase ezberdin pasatzen ditugula. Miranda Grayk bere LUNA ROJA liburuan (orain arte ikasitakoa ahaztu eta ezagutza berriez jabetzeko erabiliko duguna) bidaia fisiko, emozional, mental eta espiritual bat egitea proposatzen digu aipaturiko fase eta egoera ezberdin horietan zehar, bai eta sorkuntza-bidaia bat ere.

La menstruación es un constructo social estigmatizado, vapuleado y controlado durante siglos y siglos. Por eso es muy importante para las mujeres reconciliarnos con nuestros cuerpos, desde propuestas hechas desde y para nosotras. Es importante también recuperar nuestra naturaleza cíclica, ya que sólo observamos la menstruación cuando sangramos; pero lo cierto es que pasamos por muchísimos estados y fases antes y después de menstruar. Miranda Gray en su libro "Luna Roja", libro que tomaremos como guía para desaprender y aprehendernos de nuevo, nos propone un viaje físico, emocional, mental y espiritual a través de estas fases, así como un viaje creativo.

## BARRE EGITEN TAILERRA (10 ORDU)
## TALLER RIÉNDONOS (10 HORAS)

6, 13, 20 y 27 de octubre, JUEVES, de 17:00h a 19:30h.
Irakaslea: Miriam Herbón · **Matrikula: 5 Euro**

Ikastaro honek bakoitzak daukagun hoberenarekin, gure funts eta muinarekin konektatzen lagun diezaguke, beste pertsona batzuek dituzten gauzarik onenak aurkitzen eta ikusten … jolasteko eta ondo pasatzeko gure barne-gaitasunarekin konektatzen.

Este curso nos puede ayudar a prepararnos para conectar con lo mejor de nosotras mismas, de nuestra esencia, para encontrar y reconocer lo mejor de las otras personas. Conectar con nuestra capacidad interior de jugar y de pasarlo bien.

## BERDINTASUNEAN URBANITZATZEN TAILERRA (4 ORDU)
## TALLER URBANIZANDO EN IGUALDAD (4 HORAS)

2 y 9 de noviembre, MIÉRCOLES, de 17:00 a 19:00h.
Irakaslea: Ane Alonso · **Matrikula: 5 Euro**

Ikastaro honetan hirigintzaren lanbidean zehazten diren, eta gure eguneroko bizitzan zuzenean eragiten duten, aspektu ezberdinak aztertzen eta horien inguruan gogoeta egiten ahaleginduko gara, Halaber, ikusiko dugu, generoaren ikuspegia eta herritarren partaidetza kontutan izateak noraino laguntzen duen toki bateko herritar guztien beharrizanetara hobeto egokitzen diren guneak proposatzera.

En este curso trataremos de analizar y reflexionar sobre los diferentes aspectos que se definen en la práctica profesional del urbanismo y que repercuten directamente sobre nuestra vida cotidiana, y en qué medida la inclusión de la perspectiva de género y la participación ciudadana, favorecen la proposición de entornos que se adapten mejor a las necesidades de toda la población de un lugar.

## PRESTAKUNTZA-ETA PARTAIDETZA-GUNEA ESPACIO DE FORMACIÓN Y PARTICIPACIÓN

**BESTELAKO EKINTZAK / OTRAS ACTIVIDADES**

**KULTUR IRTEERA / SALIDA CULTURAL: urriak 15 octubre**



BERDINTASUNEKO UDAL KONTSEILUA · CONSEJO MUNICIPAL DE IGUALDAD · ELKARTEAK · ASOCIACIONES
SOLASALDIAK ETA ERAKUSKETAK · TERTULIAS Y EXPOSICIONES · HITZALDIAK... ETA ABAR · CHARLAS... ETC.

Galdetu Emakumeen Topalekuan eta PARTE HARTU! Pregunta en la Casa de la Mujer y ¡PARTICIPA!

Más información en la microsite de Igualdad / Informazio gehiagorako:
http://www.ermua.es/pags/igualdad/ca_espacio_formacion.asp
Teléfono y correo electrónico de la Casa de la Mujer / Emakumeen Topalekuko telefonoan edota posta elektronikoan:
Tfnoa: 943 17 10 30 · e.posta: igualdad2@udalermua.net

# editoriala

Beti esan izan zaigu “aniztasunean dagoela aukera” eta, zorionez, gure mundu honetan denetik dago: batzuek oporren ondorengo estresak jota daude eta beste batzuei, ordea, uda amaitezina egiten zaie, nik mendia atsegin dut, zuk, berriz, nahiago duzu hondartza. Baina aniztasun hori, sarritan, ez da nabaritzen eta kontutan hartzen. Sarriegi gertatzen da ezberdin dena, ulertzen ez dena, atsegingarri ez dena, “negatibo”tzat jotzen dela, batzuetan “arriskutsu”tzat ere bai, kasurik larrienetan debekatu eta zigortzeraino, gauzak diren hori izatea dakarren errealitate konplexuari arretarik jarri eta aztertu gabe.

Askotan, errealitate horretako faktore zenbait nahiera moldatzen dituzte hori egiteko interesa eta ahalmena dutenek, eta horrela, hedabideek, gure bizitza eta ideia orotan dauden horiek, iritziak eta epaiak esku-eskura jartzen dizkigute, pixkanaka iragazten zaizkigunak apur bat deskuidatu ezkero.

Adibideak? gerra eta probeziatik ihesi datozen etorkinena, edota burkininarena. Ideia nahasi eta ñabardura gabekoetan, dena gauza bera bailitzan, oinarritzen diren eztabaidak, gu “alde” edo “kontra”ko jarreretara eramateko, baina oinarri-oinarrizko emozietan oinarrituta, ezelako aurre-azterketarik egin gabe.

Adi egon behar dugu arrazakeriaren kontra, islamofobiaren kontra, gure askatasunen murrizketaren kontra, fundamentalismo ezberdinen kontra, emakume guztiok sexu-objektutzat hartzen gaituen patriarkatu unibertsalaren kontra edo sexismoaren kontra, zeina erlijio eta kultura guztiak gaindituz, azken muturretaraino naturalizatzera iritsi garen.

Dena den, aukeratzeko askatasuna babes dadila eskatu beharko genuke, gutxiago atsegin zaizkigun gauzak egiten dituztenena ere bai; gauzak aztertzeko eta zalantzan jartzeko daukagun gaitasuna eta iritzi ezberdinekoak izateko askatasuna babestu eta sendotu dadila, emakume guztien giza-eskubideen urraketak agerian jartzen eta salatzen jarraitu ahal izan dezagun.

Faborez, ez gaitzazue umetzat hartu. Emakumeok, ez hemengoak eta ez hangoak, ez gara takoiak, zapiak, burkiniak edota abituak jartzera behartzen gaituzten neskatillak. Gauzak konplexuagoak dira, baina hala izateak ez liguke murriztu behar emakumeon jokabide asko eta askoren oinarrian -eta gizonenean ere bai- dagoen sexismoa denon artean aztertzeko eta berorri aurre egiteko gaitasuna.

Siempre se nos ha dicho que en la variedad está el gusto, y, por suerte, en este mundo nuestro hay de todo: unas personas sufren de estrés posvacacional y –en cambio- a otras el verano se les hace insufriblemente largo, a mi me gusta el monte y a ti la playa. Sin embargo, esa diversidad no siempre se reconoce y aprecia. Demasiadas veces sucede que lo diferente, lo que no se entiende, lo que no gusta, es calificado como “negativo”, incluso como “peligroso”, y -en los casos más graves- se puede llegar a prohibir y castigar, sin atender ni analizar la compleja realidad que suele hacer que las cosas sean como son.

Muchas veces, determinados factores de esa realidad son convenientemente manejados por quienes tienen intereses y poder para hacerlo, y así, los medios de comunicación, tan presentes en nuestra vidas y en nuestras ideas, nos sirven en bandeja opiniones y juicios, que se nos van colando, a poco que nos despistemos.

¿Ejemplos? El de la gente inmigrante, que huye de las guerras y de la pobreza, o el del burkini. Debates que se lanzan a partir de ideas confusas, sin matices, como si todo fuera lo mismo, para llevarnos a posicionamientos de “a favor” o “en contra”, pero desde la emocionalidad más básica, con ningún o poco análisis previo.

No podemos bajar la guardia ante el racismo, la islamofobia, el recorte de nuestras libertades, los fundamentalismos varios, el patriarcado universal que nos sigue marcando a todas las mujeres como objetos sexuales, o ante el sexismo, que -más allá de religiones y culturas- hemos llegado a naturalizar hasta extremos insospechados.

En todo caso, tendríamos que exigir que se proteja la libertad de elegir, también la de quienes hacen cosas que nos gustan menos; que se proteja y fomente nuestra capacidad de análisis y crítica, y nuestra libertad de opinión, para poder seguir visibilizando y denunciando las violaciones de los derechos humanos de todas las mujeres.

No nos infantilicen más, por favor. Las mujeres (ni las de aquí, ni las de allá) no somos niñas a las que nos obligan a ponernos tacones, o a llevar pañuelo, burkinis o hábitos. La cosa es más compleja. Pero que lo sea no debería restarnos capacidad para, juntas, analizar y enfrentar el sexismo que está en la base de tantos y tantos comportamientos femeninos, y también masculinos.

# EZAGUTZEN AL DUZU...?

# ¿CONOCES?

## ASOCIACIÓN AFECTADAS POR ESSURE

Se conoce como "Essure" un método de anticoncepción permanente (esterilización) que consiste en la colocación de unas microbobinas o muelles en las trompas de Falopio de la mujer, para sellarlas e impedir el encuentro de espermatozoides con el óvulo y, por consiguiente, el embarazo.

Tronpen loturarik ez egiteko gure artean ere, itxuraz arazorik gabe, erabili izan den metodo bat da, baina azken urteotan espainiar estatuan ia 1000 emakumek (horietatik 50 baino gehiago Euskal Herrian) dituzten hainbat arazo fisikorekin elkartu da teknika hori.

Gailua ospitale edo kliniketan ipintzen da, 10 minututan gutxi gorabehera, eta tronpen hantura kroniko eta iraunkorra sortzeko diseinatuta dago: horretantxe datza antisorgailu moduan duen eraginkortasuna. Ez da hormonarik erabili behar, ez eta ebaki edo orbainik egin gorputzean, eta ez du anestesia osoari elkartutako arriskurik.

Según dicen algunas personas expertas, hay casos en los que podría estar generando problemas de salud y ello como consecuencia del material del que está hecho el dispositivo: una aleación de metales y fibras PET que pueden considerarse "alergénicas" o tóxicas para el organismo. En caso de necesidad, su retirada supone también quitar las trompas y puede incluir la retirada del útero.

Hala ere, Espainiako kontrazepzio elkarteak gailua segurua dela egiaztatu du, nahiz eta "antisorgailu orok bezala, albo-ondorio kaltegarriak dituen". Essure gaixoen Espainiako elkartekoek, ordea, produktu horren inguruko informazioa oso urria dela salatu dute, eta ez dagoela gailua kentzeko protokolorik.

La asociación reclama que se retire el dispositivo del mercado, al menos mientras se realicen los estudios para valorar sus efectos adversos, y pide que los servicios de ginecología informen a las mujeres de que no a todas les viene bien este método, y de lo que puede pasar.

Bere kasua azaldu nahi duen emakume oro egin daiteke elkarte horretako kide. Elkartearen helburua metodo hori ez datorkiela emakume guztiei ondo onartzea da, eta horregatik, osasun-protokolo egoki baten bitartez, gailua kendu beharra egon daitekeela aurreikusi beharra dagoela, emakume askori egin dizkien kalteak alde batera utzi gabe.



Informazio gehiago nahi izanez gero:
**asaf-essure.blogspot.com.es**
Para contactar con la representante que te corresponde por tu lugar de residencia, ver en "extensión geográfica"
**asaf-essure.blogspot.com.es/p/extension-geografica.**
**E-mail:** victimasessure@gmail.com
**Tfnoa:** 661516366 (Presidenta: Angélica del Valle)

ASOCIACIÓN AFECTADAS POR essure

# ¿CONOCES?

# EZAGUTZEN AL DUZU...?

## PAACE ELKARTEA ERMUA

### AFRIKAN NEKAZARITZA SUSTATZEKO ETA ENERGIA SORTZEKO ELKARTEA

### ASOCIACIÓN PARA LA PROMOCIÓN DE LA AGRICULTURA EN ÁFRICA Y LA CREACIÓN DE ENERGÍA

Se creó en el año 2014 con el objetivo de contribuir al desarrollo socioeconómico de Senegal, a través de:

* Aumentar el potencial agropastoral

* Favorecer el empoderamiento de la población, en especial de las mujeres y la juventud

* Contribuir a la integración y la convivencia intercultural en el País Vasco, con personas de todos los orígenes

* Realizar proyectos de codesarrollo en África, especialmente con Senegal

* Apoyar iniciativas de participación ciudadana.

2015ean eta 2016an, Afrika Ermua kultur arteko jardunaldiak antolatu ditu, emakumeen arteko bazkari herrikoiak ospatuz.

Ermuko Nazioarteko Elkartasun eta Lankidetza Kontseiluan parte hartzen du, udalaren programak aurrera eramaten lagunduz.






Informazio gehiago nahi izanez gero, edota parte hartzeko:

**Fallou Diop, Tfno. 632157330**

**paace.elkartea@gmail.com**


Testurak

# ETXEAK, BERTSOAK... ETA SAREAK
## EMAKUMEEN ETXEAK

# CASAS, VERSOS... Y REDES
## LAS CASAS DE LAS MUJERES

**Emakumeen Etxeen Sare berri bat sortu da, Arrasateko Emakume Txokoa, Azpeitiko Emakumeen Txokoa, Basauriko Marienea, Donostiako Emakumeen Etxea, Durangoko Andragunea, Eibarko Andretxea, Ermuko Emakumeen Topalekua eta Ondarroako Etxelilak osatzen dutena.**



Las casas de las mujeres vienen a hacer realidad la reivindicación feminista de crear espacios propios para el empoderamiento de las mujeres en nuestros pueblos. Desde que en 2003 se inaugurara la Casa de la Mujer de Ermua, otros muchos municipios han seguido ese camino, impulsados por el movimiento feminista y de mujeres. Su apuesta es firme y sus objetivos bien definidos: disponer de espacios de encuentro, reflexión, empoderamiento y acción feminista, para reforzar así las políticas locales a favor de la igualdad de mujeres y hombres.

El pasado año, algunas técnicas municipales de igualdad pusieron en marcha una RED DE CASAS DE LAS MUJERES en nuestra comunidad, a la que se han adherido, hasta el momento, los municipios de Arrasate, Azpeitia, Basauri, Donostia, Durango, Eibar, Ermua y Ondarroa, con la intención de poner en valor este tipo de recursos, intercambiar experiencias, facilitar la comunicación y generar/optimizar recursos en la lucha contra el machismo y la desigualdad.

En línea con el compromiso de reconocer y reforzar los procesos de empoderamiento de las mujeres, esta RED pretende ser altavoz del trabajo hecho por mujeres en diferentes ámbitos del espacio público; en ese sentido, su primera actividad, que se va a llevar a cabo desde el 30 de septiembre hasta el 1 de diciembre en los diferentes municipios de la red, pretende poner en valor la trayectoria de las mujeres en el bertsolarismo, mundo al que -desde hace tiempo- ellas están aportando frescura e innovación.



## “TESTURAK” BERTSO-SAIOA

**Urriaren 5ean, 19:00etan, Ermuko Emakumeen Topalekuan izango dugu (Oihana Bartra, Miren Amuriza, Ane Labaka eta Maite Berriozabal) eta parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.**

## EMAKUMEAK ETA BERTSOAK
### MUJERES Y VERSOS

Emakunde-Emakumearen Euskal Institutuak “Emakume bertsolariak. Ahanzturatik diskurtso propiora” izenburuko ikerketa aurkeztu du. Gema Lasarte EHUko irakaslea izan da ikerketaren zuzendaria, eta lan taldea osatu du beste lau ikerlarirekin batera: Amaia Álvarez Uria, Ana Isabel Ugalde, Pablo Lekue eta Judit Martínez.

Ikerketa egiteko, sakoneko elkarrizketak egin zaizkie 35 emakume bertsolariri, eta jardunean dauden 200 bertsolariren informazioa jaso ahal izan da galdetegien bitartez. Egindako sakoneko elkarrizketetatik ondorioztatu daiteke emakume bertsolariek ahalduntzerako lurralde berri bat sortu dutela eta bide horretan kontzienteki lanean ari direla, bidean aurkitutako oztopo guztien gainetik eta historikoki jasan izan duten isiltasunaren gainetik.

Emakumeak hegemonikoki gizonena izan den eremura hurbiltzea ahalbidetu duten faktoreen artean daude bertsolaritzaren modernizazioa, bertso-eskolen sorrera eta garapena (ikasleen artean orekatua da emakume eta gizonen presentzia), genero identitatearen eraikuntza, erreferenteen agerpena (Maialen Lujanbio da zalantzarik gabe XXI mendeko erreferentzia nagusia denentzat), eta emakumezko bertsolariek egindako ekimenak.

Ikerketak azaltzen duenez, alde emozionala oso faktore garrantzitsua da emakumeak oholtzara atera ahal izateko eta bertsolaritza-munduan jarraitzeko. Izan ere, oraindik ere txapelketetan nagusi da gizonen kopurua. Autoestimua eta segurtasuna lantzea erabakigarria da entzuleen aurrean inprobisatu ahal izateko, hain justu, segurtasun falta izaten baita emakumeek bertsolaritza aktiboa uzteko duten arrazoietako bat. Ildo horretatik, emakume bertsolariek lan handia egin dute emakumeen ahalduntzea bultzatzeko. Horrela, 2009. urtean Bertsozale Elkarteak Genero Batzordea jarri zuen martxan.

**El reciente estudio de Emakunde sobre las mujeres en el bertsolarismo habla sobre los cambios positivos que se han producido en el ámbito de su empoderamiento, en un mundo muy “masculinizado”. http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_subvencionadas2/eu_def/adjuntos/beca.2015.2.emakume_bertsolariak.pdf**

## TESTURAK

Emakume bertsolariek egindako ibilbidea, “Ahalduntze bertso eskolak” eginiko lanarekin batera, Emakumeen Etxeen Saretik sustatu nahi diren prozesuen adibidea da. Horregatik, Emakumeen Etxeen Sareak Ahalduntze bertso eskolarekin bat egin, eta ikuskizun berri

**«Testurak» es un espectáculo impulsado por la Red de Casas de las Mujeres en colaboración con Ahalduntze Bertso Eskola, en la que toman parte un número importante de mujeres (bertsolariak), interpretando diversos textos, en una labor creativa y personal. Una sesión abierta y gratuita en cada municipio de la red, en euskera.**

## TESTURAK

**Irailaren 30ean, Eibarren;
Urriaren 5ean, Ermuan;
Urriaren 28an, Ondarrun;
Azaroaren 9an, Azpeitian;
Azaroaren 11n, Arrasaten;
Azaroak 18an, Durangon;
Abenduaren 1ean, Basaurin.**

bezain berezia antolatu du: TESTURAK izeneko bertso-saioa.

Ekimen honetan parte hartuko duten bertsolariak honako hauek dira: Ainhoa Agirreazaldegi, Onintza Enbeita, Izarne Zelaia, Saioa Alkiza, Oihana Bartra, Miren Amuriza, Ane Labaka, Eli Pagola, Maider Arregi, Oihana Iguaran, Nerea Elustondo, Maialen Akizu eta Roxi Lazkano. Gai jartzaile moduan arituko dira Maite Berriozabal, Ainhoa Aranburu eta Amaia Agirre. Testurak ikuskizuna irailaren 30etik abenduaren 1era, Emakumeen Etxeen Sarea osatzen duten herrietan barrena ibiliko da. Saioak irekiak eta doakoak izango dira.

"Hainbat idazle eta sortzaileren testuak hartuko ditugu ahotan eta bertsotan; gure eztarrietatik bidea egin ondoren, zure belarrietara iritsiko direnak. Bertsolari eta gai-emaile talde anitz batek hartuko du parte, testurik testura, zabaletik estura eta eskutik eskura jarri nahian sormenaren freskura. Testutik testura: testuak, nork bere egiten dituenean, testurak baitira."



# KALE INKESTA

Galderak

El “edadismo” se considera una de las tres grandes formas de discriminación de nuestra sociedad, por detrás del sexismo y el racismo. Se define a partir de conductas que implican un trato discriminatorio hacia las personas de un determinado grupo de edad (personas mayores). Los estereotipos sociales hacen que la sufran más las mujeres, más vulnerables por el machismo que pervive en nuestra sociedad.

“Adinkeria”, sexismoa eta arrazakeriaren ondoren, gure gizartean diren hiru diskriminazio-modu handienetako bat da. Adin talde jakin bateko pertsonenganako (pertsona edadetuenganako) tratu diskriminatzailea suposatzen duten jokabideen bitartez definitzen da. Gizarte-estereotipoen ondorioz emakumeek gehiago sufritu behar dute, gure gizartean dirauen matxismoarengatik ahulagoak direlako.

**1** **¿Has oído hablar del “edadismo”? Ba al dakizu “adinkeria” zer den?**

**2** **¿Crees que esta discriminación afecta por igual a mujeres y a hombres? ¿por qué? Diskriminazio-modu hori nork sufritzen du gehiago zure ustez, emakumezkoek ala gizonezkoek? Zergatik?**

**3** **¿Cómo se podría combatir? Nola egin aurre horri?**

## MAXI HERNÁNDEZ MORATINOS
### 70 AÑOS

**1** Nunca.

**2** Siendo lo que es, creo que afecta más a las mujeres, porque se espera que seamos siempre jóvenes, guapas y esbeltas. Si no, no valemos.

**3** Creo que es muy difícil en esta sociedad.



## MANOLI CORRALES RODRIGUEZ
### 65 URTE

**1** Ez.

**2** Gaztetasuna, edertasuna… emakumeoi gehiago exijitzen zaigu.

**3** Berdintasuna lantzen badugu, gizartearen baloreak aldatuko ditugu.



## AMALIA MARTÍNEZ MARTÍNEZ
### 46 AÑOS

**1** Sí, aunque no sabía exactamente lo que es.

**2** Mucho más a las mujeres, porque prima más la apariencia que la experiencia.

**3** Intentando crear más igualdad desde la infancia.



## AINHOA DELGADO IRIONDO
### 44 URTE

**1** Ez.

**2** Beste eremu askotan bezala, “zaharra” izateaz gain, emakumezkoa bazara, bikoiztu egiten da diskriminazioa.

**3** Lehenik eta behin, arazoa agerian uzten, gero hezkidetza eta sentsibilizazioa lantzeko tresnak martxan jartzeko.



# PENTSATU ETA ASMATU!! NOR NAIZ?

## ¿QUÉ MUJER ES AUTORA O RESPONSABLE DE ESTOS LOGROS E HITOS?

ROSA PARKS · STEPHANIE KWOLEK · CHARLOTTE COOPER · BETTE NESMITH GRAHAM · MARTHA COSTON CLEOPATRA · GERTRUDE B. ELION BERTHA VON SUTTNER · SIRIMAVO BANDARANAIKE · RAYMONDE DE LA ROCHE FUNMILAYO RANSOME-KUTI · JOSEPHINE COCHRANE

**1** Kevlar fibra asmatu nuen, eta horri esker, gaur egun, balen aurkako txalekoa ditugu.

**2** Las palabras se las lleva el viento, y lo escrito se lo lleva el Liquid Paper, desde que yo lo inventé.

**3** Zuetariko asko, niri esker bizi zarete, nik asmaturiko medikamentuek organuen transplanteak ahalbidetzen baititu.

**4** Nunca hubiera pensado que yo, una mujer de Sri Lanka, sería la primera mujer presidenta del mundo.

**5** Azal zuridun gizon bati, nire eserlekua ukatu nion, beltzok zuriei eserlekua libre utzi behar genien legeari uko eginez. Ordutik, gauza asko aldatu ziren EEBB eta baita mundu osoan ere.

**6** Lo exigían las leyes y yo quería surcar el cielo, así que, para poder hacerlo, me convertí en la primera mujer en sacar la licencia para pilotar.

**7** Bakea lortzeko, armak baztertzea proposatu nuen, eta Bakearen Nobel Saria irabaziko zuen lehen emakumea bilakatu nintzen.

**8** Los barcos pueden comunicarse gracias a que yo creé el primer sistema de comunicación “inalámbrico” para barcos.

**9** 1.900. urterarte emakumeoi ez ziguten olimpiadetan parte hartzen lagatzen; hori dela eta, ni izan nintzen domin olinpikoa lortzen zuen lehen emakumea.

**10** ¡Qué pereza da eso de limpiar los platos nada más comer...! ¡Menos mal que yo inventé el primer lavavajillas!

**11** Afrikako errepideek bolantearekin eskutan ikusi zuten lehen emakumea izan nintzen ni.

**12** Conseguí que no borraran del mapa a Egipto, gracias a mis estrategias económicas y de poder.



Erantzun zuzenak/Soluciones:
1-Stephanie Kwolek
2-Bette Nesmith Graham
3-Gertrude B. Elion
4-Sirimavo Bandaranaike
5-Rosa Parks
6-Raymonde de la Roche
7-Bertha Von Suttner
8-Martha Coston
9-Charlotte Cooper
10-Josephine Cochrane
11-Funmilayo Ransome-Kuti
12-Cleopatra

# NOTICIAS DE INTERÉS
# ALBISTE INTERESGARRIAK

## REBECA LANE KANTAUTORE GUATEMALARRA ERMUAN

Urriaren 22an, arratsaldeko 20:00etan, Rebeca Lane rapera guatemalarraren musikaz gozatzeko aukera izango dugu Lobiano kultur gunean. Pasa den abuztuan atera berri duen "Alma mestiza" lana ezagutzeko aukera izango dugu. "Somos guerreras" proiektuaren sortzaile, hip-hoparen bitartez ari da emakumeen ahalduntze-prozesuetan lanean.
*https://es.wikipedia.org/wiki/Rebeca_Lane*

## GALICIA TENDRÁ LA PRIMERA ASIGNATURA SOBRE IGUALDAD DE GÉNERO

La asignatura de libre configuración sobre igualdad de género se comenzará a implantar de inmediato en los centros educativos de 1º y 2º de la ESO de Galicia que así lo soliciten. El proyecto ha sido elaborado en colaboración de la Consellería de Educación y la Secretaría Xeral de Igualdade, quienes señalan que se trata de una iniciativa pionera en España, ya que será en Galicia donde se impartirá por primera vez una materia de estas características.

Los objetivos son la concienciación de la juventud sobre la importancia de la igualdad, implementar el espíritu crítico ante situaciones de discriminación, ayudar a prevenir estas actuaciones y aceptar que la diversidad de género y de orientación sexual enriquece la sociedad.
*http://www.lavozdegalicia.es/noticia/sociedad/2016/07/13/galicia-tendra-primera-asignatura-sobre-igualdad-genero/00031468429441503471313.htm*

## PLANETA DE AGOSTINI ARGITALETXEAREN ZUZENDARITZAPEAN... ETA PLAYMOBILEKO EMAKUMEZKO- IRUDIEK BERE LEKUA IZANGO DUTE

Argitaletxeak 60 liburutan Historia kontatzeko asmoa dauka. Liburu bakoitzari Playmobileko irudi bat elkartu zion, denak gizonezkoak. Argitaletxearen kanpaina salatu ondoren, azkenean, prentsa ohar baten bitartez, emakumezko-irudiak ere sartuko dituela zabaldu dute. Dirudienez, Emakume Erakundearen kexak eta sare sozialetan sortutako mugimenduak bere eragina izan du.
Playmobil jostailu enpresak bere aldetik dio berak Planeta De Agostini argitaletxeari figurak erabiltzeko baimena eman besterik ez duela egin, eta bere irudi-sorta orokorrean emakumezko- zein gizonezko-irudiak daudela esan du. Sare sozialetan dozenaka emakume izen-proposatu dituzte erabiltzaileek: Marie Curie, Juana de Arco, Cleopatra, Frida Kahlo, Angela Davis, Mary Wollstonecraft.

## CONCURSO BELDUR BARIK 2016

Dentro del programa Beldur Barik correspondiente a 2016, ha dado comienzo el concurso, que pretende premiar todo tipo de expresión artística que muestre cómo chicas y chicos se enfrentan a las desigualdades y rechazan la violencia sexista. Dos categorías (12-17 y 18-26 años) y varios premios, muy interesantes. Entre ellos, el de Ermua, para personas empadronadas aquí. El plazo finaliza el 9 de noviembre. ¡Lee las bases y participa! http://www.ermua.es/pags/igualdad/ca_25noviembre_documentacion.asp?Programacion_Id=10

## EMAKUNDEK EMAKUME-BERTSOLARIEN ESPERIENTZIAK JASOTZEN DITUEN IKERKETA AURKEZTU DU

Emakumearen Euskal Institutuak "Emakume bertsolariak. Ahanzturatik diskurtso propiora" izenburuko ikerketa aurkeztu du. Ikerketa hau generoa eta berdintasunaren gaiak lantzen dituzten lanei Emakundek urtero ematen dizkien hiru beketako baten emaitza da. Gema Lasarte EHUko irakaslea izan da ikerketaren zuzendaria, beste lau ikerlarireki batera lan-taldea osatuz: Amaia Álvarez Uria, Ana Isabel Ugalde, Pablo Lekue eta Judit Martínez.
*http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_subvencionadas2/eu_def/adjuntos/beca.2015.2.emakume_bertsolariak.pdf*

## TECHO DE CRISTAL PARA LAS MUJERES, TAMBIÉN EN EL EJÉRCITO

Lo dice el Observatorio militar para la igualdad entre mujeres y hombres en las Fuerzas Armadas: el peso de la mujer en el ejército español aumentó los primeros años hasta llegar a representar el 12% del total de los militares en 2006. Pero, en una década, el porcentaje de mujeres militares solo ha subido medio punto, hasta el 12,5% de principios de 2016.
Además, el grueso de mujeres se concentra en los puestos de menor rango, donde trabajan unas 12.600, una sexta parte del total de tropa y marinería. Pese a lo modesto de la cifra, ésta dobla a la de oficiales mujeres (8,2%). Actualmente, solo hay dos mujeres al mando de unidades operativas.




> **Edita Argitaratzen du:**
**Departamento de Igualdad del Ayto. de Ermua**
**Ermuko Udalaren Berdintasunerako Sailak**

> **Redacción Erredakzioa:**
Begoña Fernández, Idoia Carracedo, Izaskun Rodriguez.

> **Coordinadora Koordinatzailea:**
Begoña Fernández

> **Realización Egilea:**
La Central B.E.

*Si quieres recibir la revista en tu domicilio, solicítalo en la Casa de la Mujer.*
***Aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, Emakumeen Topalekuan eskatzea besterik ez daukazu.***


*Se autoriza el uso de estos textos siempre que se mencione su procedencia.*
***Testu hauen erabilera baimentzen da, beti ere iturria aipatuz.***


**CASA DE LA MUJER / EMAKUMEEN TOPALEKUA**
Izelaieta kalea, 12 - 48260 ERMUA
Tfnoa: 943 171 030 · E.posta: casadelamujer@udalermua.net · web: www.ermua.es
https://www.facebook.com/#!/igualdadERMUA/?fref=ts


Casa de la Mujer / Ermua Emakumeen Topalekua


Depósito Legal: BI-243/2010